

Agurra

Euskal Autonomi Erkidegoko Lehendakari Jauna,

Eusko Legebiltzarreko Lehendakari Anderea,

Nafarroako Legebiltzarreko Lehendakari Jauna,

Nafarroako Legebiltzarreko Lehendakari Jauna

Gipuzkoako Batzar Nagusietako Lehendakari Jauna,

Arabako Batzar Nagusietako Lehendakari Anderea,

Bizkaiako Batzar Nagusietako Lehendakari Anderea,

Gipuzkoako Batzarkide Andere eta Jaunak,

Iruñako Udaleko Alkate Jauna eta Gipuzkoako Udal ugaritako Alkate Andere eta Jaunak,

Egun on eta Ongietorri, gaur Altzora hurbildu zareten guztioi.

Altzotar bezala eta alkate bezala, ohore handia da niretzat Altzo-azpiko elizan antolatu dugun biltzar eder honetan zuen bixita jasotzea. Gipuzkoako Batzar Nagusien Osoko bilkura Berezia jasotzen duen lekua ezin zitekeen egokiagoa izan. Izan ere, (G)ipuzkoa izena, Ipuscoa bezala, historian lehen aldiz (1025ean) Olazabalgo Salvatore monastegiaren dohaintza batean ageri da.

Seguraski, Ipuzkoa izena aurrez ere erabiliko zuten baina ezagutzen denez, idatzita agertu den lehen aldiaren 1000. urteurrena betetzen dugu aurten.

Iruñako Errege Antso III. aurrean eginiko dohaintza idatzia latinez idatzia dago eta hori ez da harritzekoa, garai hartako jauntxoek eta eliz gizonak latinez idazteko ohitura omen zutelako. Testua latinez egon arren euskal leku izen ugari ageri dira: Otsabio, Berazubia, Haralarre, Hezeiza-zabal, Ugarte, Aia, Elkano, Ezkiaga, Iturriotz, Zuaznabar, Artzadun eta noski Olazabal. Adituek diotenez horrek argi eta garbi erakusten du garai hartan hemen eta inguruan bizi ziren pertsonak euskaraz hitz egiten zutela eta euskaraz ezagutzen zituztela inguruko lekuak.

Elena Barrena Osoro, aurtengo apirilean zendu zen historiagileari esker **mapa** txukun batean jasota daude 1025ko agiri historikoan aipatzen diren leku izen nagusienak. Bihoakio hemendik gure aitortza eta esker ona.

Bestalde, Josu Narbarte Hernandez historiagile eta arkeologoaren hitzak jaso, XI. Mendeko gizartea konplexua eta dinamikoa zen, hainbat eragilek osatua: monarkia, noblezia, monasterio handiak, apezpikuak... eta, garaiko agirietan ia agertzen ez bada ere, baita herri xehea ere,

nekazariz eta abeltzainez osatutakoak, bere lanaren bidez gizarte osoaren egiturari eusten ziona.

Ordutik **mila urte igaro eta gero euskaraz hitz egiten jarraitzen dugu eta euskal leku izenak hementxe diraute**, gure inguruan, gaurko gizarte konplexuan ere. Beraz, mila urte igaro ondoren, leku honetantxe bertan, hementxe Olazabalgo elizan, gaur guztiok bildu izanak eta gure hizkuntza naturala euskara izateak, **argi eta garbi erakusten du herri honen eta gure hizkuntzaren iraupena eta bizinahia**. Hala bedi etorkizunean ere, beste mila urtean bederen ...

Hona ekarri gaituen agiri historikoak 3 protagonista nagusi ditu:

Ipuzkoako GAYLA eta Gartzia Azenariz senar emazteak batetik eta Iruñeako Antso III. erregea bestetik.

Dohaintza agiria sinatzen duten 2 jauntxoetako bat Ipuzkoako Gayla **anderea** izateak argiro erakusten digu emakumearen garrantzia, duela mila urteko Ipuzkoa hartan. Aitor Pescador Medrano historiagileak azpimarratzen du XI. Mendeko emakumeak oso askeak zirela, batez ere jauntxoak edo linaje altukoak baziren.

Bestalde esanguratsua da oso, noren aurrean sinatu zuten agiria. Iruñako Antso III. Erregearen aurrean. Bera izan zen ekintzaren fede emailea. Gipuzkoako Jaunek naturalki jotzen zuten Iruñako Erresumaren zati zirela eta agiri garrantzitsuak Iruñako erregearen aurrean sinatu behar zituztela. Hori omen zen normala eta naturala garai hartan.

Geroztik, mendez mende, bere antolaketa eta egiturak moldatzen jakin ditu gure herriak, Euskal Herriak. Gaur egungo errealitatean 3 zati administratiboetan banaturik gaude euskal herritarrek. Euskadiko Autonomi Erkidego osatzen dugun Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan bizi gara gehienok. Nafarroako Foru Erkidegoan beste herritar multzo esanguratsua, Eta azkenik, Frantziako Estatuaren zati dira Lapurdi, Baxenabar eta Zuberoako herrialdeak.

Konfiantza osoa dut ordea, etorkizunean ere, Euskal Herriak jakingo duela modurik egokienean antolatzen, beste herri askoren gisan, berezkoa duen **erabakitzeko eskubidea aitortu eta demokratikoki gauzatuz**. Guri dagokigu, herri ordezkari garen neurrian, herriari hitza ematea eta herriak eskatzen duena bideratzea. Ez dago ezer demokratikorik, nire ustez, herriari hitza ematea baino. Eta herritarren hitza errespetatzea baino.

Esan bezala, Olazabalgo monastegia zegoen leku berean bildu gara gaur (mila urte beranduago) Euskal Herriko ordezkaritza anitza eta zabala.

Ipuscoa izena lehen aldiz idatzi zenetik mila urtera, egungo GIPUZKOAren ordezkaritza zilegi eta legitimoa bildu gara leku historiko honetan, bereziki dotore ageri zaigun Altzo-azpiko elizan. Gipuzkoako Batzar Nagusien bilkura berezi honek ematen didan aukera baliatu nahi dut, bihotzez eskerrak emateko Batzarkide guztioi, Diputatu guztioi, eta nola ez, Gipuzkoako aniztasuna gardenki ordezkatzeko duzuen Alkate eta zinegotzi guztioi. Eskerrak baita ere, beste herrialdeetatik hurbildu zareten gonbidatu guztioi. Mila esker bihotz bihotzetik, guztioi.

Eta nire hitzalditxoa amaitzeko gonbidapen xume bat. Bilkura amaitzean eta kanpora irteten garenean, nahi duen oro gonbidatzen dut, Palestinarekiko elkartasun keinu txiki bat egitera gaurkorako egindako deialdiaren harira, atarian hamabost minutuko geldialditxoa eginez.

Milesker denoi eta egun ona izan!

Xabier Olano Jauregi, Altzoko Alkatea